



EUSKADIKO HALTEROFILIA ELKARGOA



EUSKADIKO HALTEROFILIA FEDERAKUNTZAREN

AUZIAK JUDIZIOZ KANPO EBAZTEKO ERREGIMENA

REGIMEN DE RESOLUCIÓN EXTRAJUDICIAL DE CONFLICTOS

DE LA FEDERACIÓN VASCA DE HALTEROFILIA



AUZIEN EBAZPEN ESTRAJUDIZIALERAKO ARAUDIA

1. Artikulua- Araudi honen helburua da Euskadiko Halterofilia Federazioak bere Estatutuetan auzien ebazpen estrajudizialerako aurreikusita daukana garatzea.

Auzien ebazpen estrajudiziala arbitraje eta adiskidetzeko indarrean dagoen herri legeria espezifikoari lotuta geratzen da, oro har, bai eta kirol arloan sortzen diren auzien ebazpen estrajudizialerako beste formula batzuei lotuta ere.

Lege esparru orokorraren eta Euskadiko Halterofilia Federazioaren Estatutuen osagarri da araudi hau. Federazioaren eta federatuen artean edo federazioko kideen eta beste batzuen artean sor litezkeen auzi edo desadostasunetan adiskidetzeko edo ebazpen estrajudizialerako araudia da, hain zuzen ere. Eta, hirugarren batek berariaz eskatuz gero, hirugarren horren eta Federazioaren edo federatu edo kideren baten arteko auziak ebazteko ere bai.

2. Artikulua- Auzia guztiak bide honen bidez ebatzi ahal izango dira, honako hauek izan ezik: administrazioak Euskadiko Halterofilia Federazioaren esku utzitako jarduerak, eta berariaz arbitrajeetatik kanpo utzitako lege-gaiak.

3. Artikulua- Euskadiko Halterofilia Federazioa araudi honetan arautzen den arbitrajeari lotuta geratzen da bere borondatez, eta ondorioz Kirol Arbitrajeko Euskal Auzitegiari eta haren arauari lotuta.

Federazio lizentziaren jabeak auzien ebazpen estrajudizialerako araudi honi lotuta geratuko dira beren borondatez, non eta hilabeteko epean, lizentzia lehen aldiz ematen denetik kontatzen hasita, edo araudi hau argitaratzen denetik hilabete igarota, kontrakorik berariaz adierazten ez duten.

Federazio lizentzia eduki beharrik ez duten Euskadiko Halterofilia Federazioaren gainerako kideak (lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordeko kideak; zuzendari eta teknikariak etab.) auzien ebazpen estrajudizialerako araudi honi lotuta geratuko dira beren borondatez, non eta hilabeteko epean, kargua hartzen dutenetik kontatzen hasita, edo araudi hau argitaratzen denetik hilabete igarota, kontrakorik berariaz adierazten ez duten.

Euskadiko Halterofilia Federazioari atxikitako klub eta kirol elkarteak auzien ebazpen estrajudizialerako araudi honi lotuta geratuko dira beren borondatez, non eta hilabeteko epean, Federazioari atxikitzen direnetik kontatzen hasita, edo araudi hau argitaratzen denetik hilabete igarota, kontrakorik berariaz adierazten ez duten.

4. Artikulua- Uko egitea idatziz adieraziko da, kidetze datuak (izen-deiturak edo helbide soziala, helbidea IFK), eta hala badagokio lizentzia zenbakia, emanda. Uko egitea liburu batean jasoko du Euskadiko Halterofilia Federazioak, berariaz hartarako prestatuko duen liburuan, hain zuen ere.



5. Artikulua- Euskadiko Halterofilia Federazioak hirugarrengoei emango die uko egitearen berri, baldin eta uko egitea orokorra izan ez bada, eta informazioa eskatzen duenak adierazten badu desadostasunen bat edo auziren bat duela lizentziaren jabearekin edo Euskadiko Halterofilia Federazioko kidearekin, eta bere asmoa dela auzien ebazpen estrajudizialerako araudi honi lotuta geratzea.

Interesatuak idatziz egin beharko du informazio eskaera eta Federazioak ere idatziz erantzun beharko dio.

Euskadiko Halterofilia Federazioak zazpi laneguneko epean erantzun beharko du, eskaera jasotzen duenetik kontatzen hasita.

6. Artikulua- Euskadiko Halterofilia Federazioko federatuek eta/edo kideek hasiera batean arbitrajeari uko egin ondoren, gero onartu egingo dute osorik edo auzi edo desadostasunen bat konpontzeko, eta horretarako araudi honen eranskinean jasotzen den konpromiso-agiria izenpetu beharko dute.

7. Artikulua.- Osorik onartzen bada, edozein unetan aurkeztu ahal izango da.

Kasu horretan, Euskadiko Halterofilia Federazioak baja emango dio hasiera batean egindako oharpenari, araudi honetan ezarritakoa betez.

8. Artikulua- Auzi edo desadostasun bat konpontzeko deitzen dutenean, interesatuak Euskadiko Halterofilia Federazioari edo Kirol Arbitrajeko Euskal Auzitegiari jakinaraziko dio, hirugarren interesatuaren edo hark eskatuta Euskadiko Halterofilia Federazioaren deia jaso eta hamabost eguneko epean.

9. Artikulua- Arbitrajea, eta oro har auzien ebazpen estrajudiziala, Kirol Arbitrajeko Euskal Auzitegiaren ardurapean geratzen da. Organo hori Euskadiko Kirol Federazioen Batasunak osatuko du.

10. Artikulua- Arbitrajea aplikatzeko prozedura, eta hala badagokio auzien ebazpen estrajudizialerako beste edozein sistema aplikatzeko, Kirol Arbitrajeko Euskal Auzitegiak berak aurreikusitakoa izango da.

11. Artikulua- Kirol Arbitrajeko Euskal Auzitegiaren laudoak gauzatzeko, borondatezkoa edo derrigorrezkoa, Auzitegiaren beraren Kirol Arbitrajerako Kodea erabiliko da.



ERANSKINA

1.- Federatuen eredua.

..... jaun/andreak, NA
duenak,(e)an helbidea duenak eta
Euskadiko Halterofilia Federazioaren zenbakiko lizentziaren
jabe denak, honen bidez adierazten du Federazio honek arautzen duen auzien
ebazpen estrajudizialerako sistemari lotuta dagoela, Federazioaren eta idatzi
hau izenpetzen duenaren artean edo federatu nahiz bertako kideen eta idatzi
hau izenpetzen duenaren artean sor litezkeen desadostasunak eta auziak
kopontzeko.

.....(a)

Izptua.:.....

2.- Kideen eredua.

..... jaun/andreak, NA
duenak,(e)an helbidea duenak eta
Euskadiko Halterofilia Federazioaren kide denak, honen bidez adierazten du
Federazio honek arautzen duen auzien ebazpen estrajudizialerako sistemari
lotuta dagoela, Federazioaren eta idatzi hau izenpetzen duenaren artean edo
federatu nahiz bertako kideen eta idatzi hau izenpetzen duenaren artean sor
litezkeen desadostasunak eta auziak kopontzeko.

.....(a)

Izptua.:.....

3.- Klub edo kirol elkarten eradua.

..... jaun/andreak, NA
duenak, helbidea duen
IFK..... duen eta Euskadiko Halterofilia Federazioaren
lizentzia.....zenbakikoa duen(r)en
izenean eta ordezkaritzan, honen bidez adierazten du Federazio honek arautzen
duen auzien ebazpen estrajudizialerako sistemari lotuta dagoela, Federazioaren
eta idatzi hau izenpetzen duenaren artean edo federatu nahiz bertako kideen
eta idatzi hau izenpetzen duenaren artean sor litezkeen desadostasunak eta
auziak kopontzeko.

.....(a)

Izptua.:.....